



2021eko abendua

UDAZKEN BIZIKLETARIA EMISIO GUTXIKO EREMUAK


Orain arte bizi izan den krisi pandemikoak eztabaida handia eragin du, globala eta tokikoa, beste gai batzuen artean pertsonen eta salgaien mugikortasunaren eta garraioaren inguruan. Era berean, automobilik gabeko hiriak ikusi ditugu, zarata eta kutsadura gutxiagokoak, lasaiagoak, non bizikletaren erabilera areagotu egin den. Hiri askotako hiri-espazioko “hirigintza taktikoko” esku-hartzeek, oinez ibili ahal izateaz gain, bizikletaren erabilera segurua ere erraztu dute.

Osasun-larrialdiari gehienbat hiriek aitortu eta onartutako larrialdi klimatikoa gainjarri zaio. Konpromiso horiek, kasu gehienetan, motordun mugikortasunak sortutako berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea eta hiriak klima-baldintza berrietara egokitzea dute helburu. Hirietako hiri-metabolismoaren eraldaketa onartutako erronka da, non espazio publiko “berdeek” gero eta garrantzi handiagoa duten eta trafiko motorduna murriztea erabakigarria den; horrela, hirietako bizitzaren eraldaketa, erresilientzia eta kultur jasangarritasunerako tresna gisa bizikletak duen garrantzia are gehiago handitzen da. Testuinguru horretan, Emisio Gutxiko Eremuak ezartzea eta bizikletan modu masibo eta seguruan ibiltzeko azpiegitura egokiak finkatzea (bizikleta-bideak, aparkalekuak, etb.) hirietako agenda politiko eta sozialaren parte dira.



DOKUMENTU HAUTAKETA

Gaur egun, 2.400 pieza dokumental baino gehiago daude gure datu-basean gordeta. Hona hemen interesgarriak iruditzen zaizkigun dokumentu batzuen erreferentzia labur bat.



Directrices para la creación de zonas de bajas emisiones (ZBE)

Ministerio para la Transición Energética y el Reto Demográfico (MITECO). 2021

MITECOk (Trantsizio Energetiko-rako eta Erronka Demografikorako Ministerioa), Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioarekin (FEMP) lankidetzan, gidalerro batzuk prestatu ditu, ZBE (Emisio gutxiko eremuak sortzeko jarraitibideak) bat diseinatu eta ezarri behar duten toki-erakundeentzat gida gisa erabiltzeko. Dokumentuak, emisio gutxiko eremuak zertan dautzan azaltzeaz gain, ingurumen-politikekiko helburuak eta elkarreragina garatzen ditu. Jarraitibideek ZBE motak eta edozein zonifikazio-proiekturen gutxieneko edukiak deskribatzen dituzte, bai ta horiek ezartzeko prozesua ere.

Mujeres y personas no binarias en bici 2020. Estudio de movilidad ciclista en Barcelona desde una perspectiva feminista

Col·lectiu Punt 6. 2021

Bartzelonako emakumeen eta batarrek ez diren pertsonen bizikleta bidezko mugikortasunari buruz **2019an egindako azterlanaren** jarraipena da lana. Ikerketaren helburua bizikleta bidezko mugikortasunaren inguruko datuak biltzen eta gaiak ikusarazten jarraitzea da, ikuspegi feministatik.



«I per què no?» El retorn de la bicicleta a Barcelona (1977-1997)

Fundació Catalunya Europa. 2020ko abendua

Pascual Maragallen alkatetzan (1982-1997) hiriko kaleetako bidegorriei buruz eta bizikletaren erabilera eta potentzialari buruz izan ziren eztabaida bizietatik abiatuta, lanak Bartzelonako bizikletari buruzko lehen udal-politikak aztertzen ditu. Eremu publikoaren inguruko gatazka da abiapuntua eta justifikazioa, kaleetan bizikletek gero eta presentzia handiagoa duten egoera politiko, sozial, ingurumeneko eta kulturalak aztertzen dituen ikerketari ekiteko. Lana Santiago Gorostizak, Azahara Sillerok eta Àngel Cebolladak egin dute.




Guía de buenas prácticas. Programa de promoción de seguridad en bicicleta

Federación Europea de Ciclistas. 2020


Bizikletaren erabilera eta bizikleta-mugikortasunaren segurtasuna sustatzeko har daitezkeen neurri positiboen zerrenda jasotzen du gidak. Herbehereetako eta Danimarkako esperientzietan oinarritzen da; izan ere, bi herrialde horiek esperientzia esanguratsua garatu dute bizikleta-segurtasunaren arloan. European Cyclists' Federation, Fietzersbond (Herbeheretako Txirrindularien Batasuna) eta Cyklistforbundet (Danimarkako Txirrindularien Federazioa) elkarrean artean idatzi dute. *ConBici-k aukeratu.*



DONES I PERSONES NO BINÀRIES EN BICI Estudi de Mobilitat Ciclista a Barcelona des d'una perspectiva feminista



l'Ajuntament de Barcelona "Convocatòria de subvencions projectes de districte i ciutat 2020" i del Premi Bicicampus de l'AMB



Manuales de infraestructuras para bicicleta

Bicycle Infra Manuals


Mundu osoko bizikleta-azpiegituri eta politikei buruzko 400 esku-liburu baino gehiago biltzen dituen dokumentu-biltegi telematikoa.



Guía de las Vías Verdes. Norte

Fundación de los Ferrocarriles Españoles. Anaya Touring. 2021

Bide Berdeen gida ofizialak 35 ibilbide eskaintzen ditu, Espainiako iparraldeko trenbide-trazatu zaharretan barrena. Ibilbide seguruak, errazak eta irisgarriak biltzen ditu mendi-ibilikiak eta bizikletak gustuko dituzten adin eta baldintza guztietako pertsonentzat. Ibilbide bakoitzak barne hartzen ditu ibilbidearen eta ingurunearen deskribapenak, trenbidearen historia, ostatu hartzeko eta bizikletak alokatzeko iradokizunak, kokapen-mapak, profil altimetrikoak, argazkiak eta informazioa zabaltzeko QR kodeak.



Urbanismo Ciclista. Una breve introducción para personas que no les importa un carajo

Mikael Colville-Andersen. 2019

2018an, egile berak **Copenhagense – La guía global definitiva para el urbanismo ciclista** argitaratu zuen. Bizikleta-hirigintzan interesa duten pertsonen zuzendutako gida izan zen, eta bizigarritasuna diseinatzeko eta hobetzeko eta hiriak humanizatzeko bizikleta tresna gisa sartu duten Kopenhageko eta mundu osoko beste hiri batzuetako arrakastetatik eta porrotetatik ikasteko pentsatuta zegoen. Argitalpen berri hau, aldiz, pertsona eszeptiko, ergel, kexati edo desinformatuei zuzenduta dago. Liburu hau gida azkar eta eraginkorra da bizikletak garraio bide gisa zergatik eta nola erabiltzen diren ulertzeko.




Mujeres en bicicleta. Imaginarios, prácticas y construcción social del entorno en la ciudad de Sevilla

Elena Huerta; Cristina Gálvez. Revista de Antropología Experimental nº 16, 2016. Jaengo unibertsitatea.

2014. eta 2015. urteetan egindako *Movilidad sostenible en Andalucía: prácticas y discursos en el uso de la bicicleta* proiektuaren esparruan egindako azterketa. Etnografiaz gain, zenbait eztabaida-talde eta bi partaidetza-foro egin ziren. 57 elkarrizketa egin zitzaizkien hainbat eragileri, eta etengabeko behaketa-lan parte-hartzailea ere egin zen. Lortutako emaitzetan oinarrituta, azterlan honen bidez erakutsi nahi da emakumeek bizikleta erabiltzeko dituzten pertzepzio eta irudikapenekin zerikusia duten alderdiek nola eragiten dien haien bizikleta erabiltzeko moduari eta bikletarekiko duten egiazko irismenari.

GOMEDIAIOA

Alfonso Sanz mugikortasunean adituak Ivan Iltxen *Energía y Equidad. Los límites sociales de la velocidad* liburua gomendatzen digu bideo honetan.



ALBISTEAK

Velo-city



Irailaren 6tik 9ra Velo-city urteroko biltzarra egin zen Lisboan. Aukeraturako lema *Bizikleta-aniztasuna* izan zen, eta, nolabait, bizikletaren erabileraren, pertsonen eta bizikletaren aniztasuna iradokitzen du izenburu horrek. Hitzordua zenbait eremutan egituratu zen: Bizikletaren aniztasuna eta hiri-mugikortasuna; Ekonomia eta turismoa; Hirien eta politikaren berregituraketa; Erakuntza komunitarioa, baterako sorkuntza eta gizarteratzea; Osauna eta erresilientzia klimatikoa.

Aurkezpenak:

<https://drive.google.com/drive/folders/1JoMXdW1umA9whygbFZc-F3v5SoYiSMP48>

Bideoak:

<https://www.velo-city2021.live/>



La importancia de los aparcamientos seguros para garantizar la movilidad en bicicleta. Red de Ciudades por la Bicicleta (RCxB)



Azaroaren 18an, RCxB-k jardunaldi tekniko monografiko bat egin zuen, gure hiri eta lurraldeetan bizikleta bidezko mugikortasuna bermatuko luketen aparkaleku seguruei buruz.

Jardunaldiaren hasieran, aurkezpena eta mahai-ingurua egin ziren, tren-geltokietan edukiera handiko bizikleta-aparkalekuen politikei eta garapenari buruz. Ondoren, Espainiako hainbat hiritan aparkaleku seguruak egiteko abian jarritako jardunbide egokiak azaldu ziren, eta eguna amaitzeko, aparkaleku-sistemen hornitzaile nagusien aurkezpen laburrak egin ziren.

Datorren Donostia. Mugikortasun-eredu berria.



Azaroaren 19an, Donostiako Udalak *Datorren Donostia* mugikortasun-ereduaren proposamena aurkeztu zuen. Eredu horren helburua da, oinezkoen, txirrindularien eta garraio publikoa erabiltzen duten herritarren mugikortasuna hobetzea. Planak, eztabaidarako eta ekarpenetarako irekia, mugikortasunaren eskema eraldatu nahi du datozen urteetan, hainbat eremutan jarduerak eginez. Hiria erabat berrantolatzeko planteamendu bat da, oinezkoentzako espazioak indartuz eta bideak eta garraio publikoa diseinatuz, Euskotren trenbide-sarea handitzea kontuan hartuta.



AGENDA

Copenhagen klase magistralak, Copenhagenize-k antolatuta




2022ko ekainaren 8tik 10era Bizikleta-hirigintzako ikastaro trinkoa, Europa iparraldeko praktikarik onenak eta mundu osoko berrikuntza arrakastatsuak biltzen dituena. Parte hartzen dutenek aukera izango dute bizikleta-hiri bat esploratzeko eta mugikortasunaren plangintzaren eta hiri-bizitzaren arteko loturak bertatik bertara ulertzeko. Hiru eguneko ikastaroak hitzaldiak, ibilbideak, tailerrak, janari ona eta konpainia bikaina bilduko ditu.

Velo-city 2022



Ekainaren 14tik 17ra Hurrengo Txirrindularitzaren Munduko Gailurra Ljubljanan (Eslovenia) egingo da. Urteroko topaketa hau plataforma globala da txirrindularitzaren arloko ezagutzak trukatze eta politikak transferitzeko. 1980ko lehen ediziotik, paper baliotsua izan du bizikleta sustatzen, era guztietako pertsonentzako garraiobide jasangarri eta osasungarri gisa. Aurtengo leloa *Cycling the Change* da (Aldaketa pedalei eraginez).





Zikloteka. Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazioa Zentroa

Zikloteka bizikleta bidezko mugikortasunen espezializatutako dokumentazio-zentroa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Cristina Enea Fundazioak sortutakoa. 2016. urtean ireki zituen ateak Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean, Donostian.

Buletin honetan interesekoak izan daitezkeen argitalpenak eta bizikleta bidezko mugikortasunarekin lotutako albisteak biltzen ditugu, baina, horrez gain, zuen laguntasuna jasotzea ere nahiko genuke. Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko dokumentuak, bideoak, kartelak... badituzue edo haien berri baldin baduzue, guri helaraztea eskertuko genizueke.

Telefonoz deitzen badiguzue (943 453 526) edo mezu elektronikoko bat bidaltzen baduzue (zikloteka@donostia.eus) gustu handiz erantzungo dizuegu, eta esku artean duzuen informazioa edo dokumentazioa nola jaso eta Ziklotekako dokumentu-funtsean nola txertatu adostuko dugu.

Gogorazten dizuegu posible dela Ziklotekako espazio fisikora bertaratzea dokumentuak kontsultatzeko eta maileguan hartzeko; indarrean dagoen COVID protokoloa aplikatuko da

Zikloteka. Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazio Zentroa
Mandasko Dukearen Pasealekua, 66. 20012 Donostia
943 45 35 26 | zikloteka@donostia.eus | cristinaenea.eus/zikloteka

Orduetgia

Astelehenetik larunbatera: 9:30 -13:30 / 15:00 -19:00 (udako ordutegian 20:00ak arte)
Igande eta jaiegunetan: 10:00 -13:30



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro